

**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

Aaiunen, Marokoko agintariek 20.000 sahararrek baino gehiagok beren egoeragatik modu baketsuan protesta egiteko bilduta zeuden kanpamentua bortxaz hustuarazita izandako gertaera larri-larriak direla-eta:

1.- Eusko Legebiltzarrak kondenatu egiten ditu Marokoko Gobernuak saharar populazioaren kontra egindako indarkeria-ekintzak, eta elkartasuna eta babesa adierazten die sahararrei.

2.- Eusko Legebiltzarrak kondenatu egiten du saharar zibilen hilketak, Marokoko Armadak Aaiunen kokatutako zibilen kanpalekuen kontra burututako eraso militar bortitzak eragindakoa, eta elkartasuna adierazten die eraso horren biktimei eta beren senideei. Era berean, barru-barrutik deitoratzen du liskarretan hildako polizia marokoarren heriotza.

3.- Eusko Legebiltzarrak salatu egiten du Marokoko Gobernuaren jarrera, galerazten ari baita Europako Parlamentuko, Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko kideek Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetara sartzea.

4.- Eusko Legebiltzarrak berriro adierazten du konpromisoa daukala saharar herria jasaten ari den egoera salatzeko eta herritar horien eskubide zibil eta politikoak eskatzeko.

5.- Eusko Legebiltzarrak azaltzen du kezkatuta dagoela Marokoko indar polizial eta militarren presioak giza eskubideen bortxaketa ari delako eragiten Mendebaldeko Saharan.

6.- Eusko Legebiltzarrak Nazio Batuen Erakundeari eskatzen dio eman diezaiola MINURSOI saharar populazioaren giza eskubideak babesteko ahalmena. Eusko Legebiltzarrak exijitzen du, gainera, MINURSOk (Nazio Batuen misioa Mendebaldeko Sahararen erreferendumerako) bitarteko indar gisa jokatu dezala gertakari hauen aurrean.

Ante los gravísimos incidentes acaecidos en el Aaiún al desalojar por la fuerza las autoridades marroquíes el campamento en el que protestaban pacíficamente por su situación más de 20.000 saharavis:

1.- El Parlamento Vasco condena los actos de violencia del Gobierno de Marruecos sobre la población saharavi, a la que muestra su solidaridad y apoyo.


2.- El Parlamento Vasco condena la muerte de civiles saharavis, consecuencia del violento ataque militar del ejército marroquí sobre los campamentos de civiles en El Aaiun, y se solidariza con las víctimas de ese ataque y con sus allegados. Asimismo, lamenta profundamente la muerte de policías marroquíes ocurrida en el curso de los enfrentamientos.


3.- El Parlamento Vasco denuncia la actitud del Gobierno de Marruecos de impedir el acceso de los miembros del Parlamento Europeo, del Parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca y del Parlamento de Navarra a los territorios ocupados del Sahara Occidental.

4.- El Parlamento Vasco reitera su compromiso en la denuncia de la situación que sufre el pueblo saharavi y la reivindicación de sus derechos civiles y políticos.

5.- El Parlamento Vasco manifiesta su preocupación ante las violaciones de Derechos Humanos que causa la presión de las fuerzas policiales y militares de Marruecos en el Sahara Occidental.

6.- El Parlamento Vasco requiere a Naciones Unidas que dote a la MINURSO de la potestad de salvaguardar los Derechos Humanos de la población saharavi. El Parlamento Vasco exige además, que la MINURSO (Misión de las Naciones Unidas para el referéndum del Sahara Occidental), ejerza de fuerza de interposición ante estos acontecimientos.





7.- Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eta instituzio guztiei eskatzen die bermatzaile- eta begirale-jarrera mantendu dezala Mendebaldeko Saharan giza eskubideak haustearen aurrean, eta areagotu ditzatela beharrezko diren lan diplomatikoak, behingoz bukatu dadin Gdeym Izik kanpalekuaren kontrako eraso bortitza eta Aaiungo ondorengo gorabeherak, aurrerantzean biktima gehiagorik ez izateko.

8.- Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela nazioarteko behatzaileak etengabe egotea lurralde okupatuetan, eta animatu egiten ditu gizarte zibila eta erakunde eta kargu instituzionalak jarraitu dezaten giza eskubideen bortxaketak salatzen.

9.- Eusko Legebiltzarra berretsi egiten du saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea Nazio Batuen Erakundeak adostutako eran.

10.- Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio hartu dezala berari dagokion papera eta babestu dezala gatazka konpontzeko prozesua Nazio Batuen esparruan.

11.- Eusko Legebiltzarrak animatu egiten ditu herritarrak eta instituzioak Euskadin egitate hauek arbuiatzeko antolatzen diren ekitaldietan parte har dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 8a.

Adierazpen instituzional hau bidaliko zaie Marokoko agintariei, agintari sahararrei, Espainiako Gobernuari, Europar Batasunari eta Nazio Batuei.

7.- El Parlamento Vasco insta al gobierno español y al conjunto de instituciones a mantener una postura garantista y vigilante ante las violaciones de derechos humanos en el Sahara Occidental, y a intensificar las labores diplomáticas que sean necesarias para poner fin al asalto violento contra el campamento Gdeym Izik y a los posteriores incidentes del Aaiun, de forma que se eviten nuevas víctimas.

8.- El Parlamento Vasco manifiesta la necesidad de mantener observadores internacionales permanentemente en los territorios ocupados y anima tanto a la sociedad civil como a organizaciones y cargos institucionales a seguir en la denuncia de las violaciones de los derechos humanos.

9.- El Parlamento Vasco reafirma el derecho de autodeterminación del pueblo saharavi en los términos acordados por la ONU.

10.- El Parlamento Vasco solicita al Gobierno de España que tome el papel que le corresponde y apoye el proceso de resolución del conflicto en el marco de Naciones Unidas.

11.- El Parlamento Vasco anima a la ciudadanía e instituciones a participar en los actos de repulsa por estos hechos que se vayan a convocar en Euskadi.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 2010

Esta declaración institucional se enviará a las autoridades marroquíes, a las autoridades saharavis, al gobierno español, a la Unión Europea y a Naciones Unidas.